

EAeko Auzitegi Nagusiak Gizarte Ekimeneko patronalak otsailean sinatutako Greba Amaierako Akordioan adostutako soldatak ordaintzera kondenatu ditu

Sindikatuek epaia betetzeko, soldatak eguneratzeko, greba amaierako akordioan adostutako betetzeko eta hitzarmenean oztoporik jarri gabe txertatzeko eskatzen diente patronalei

EAeko Auzitegi Nagusiak eman du epaia. Bertan epaitegiak berresten ditu azken hilabeteetan sindikatuek defendatu dituzten gai guztiak. Besteak beste, Greba Amaierako Akordioa indarrean dagoela sinatu zen unetik bertatik, hau da 2024ko otsailaren 5etik; patronalek akordioa betetzeko obligazioa dutela, eta finantzaketari baldintzatua ez dagoela ere betetzea; zein patronalek, 2024ko soldatak martxoan ordaintzen hasteko betebeharra izan arren, ez dutela bete.

Horrela, Epaitegiak patronalak kondenatzen ditu 2024an Greba Amaierako Akordioan adostutako tauen araberako soldatak ordaintzera Gizarte Ekimeneko langileei 2024ko martxotik aurrera, hau da, akordioa sinatu eta hurrengo hilabetetik aurrera.

Gogoratu behar da otsailaren 5ean sinatu zela Greba Amaierako Akordioa Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan. Akordioa 14 greba egun eta hainbat mobilizazioi esker sinatu zela eta Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahai negoziatzailean ordezkaritza daukaten patronalek eta sindikatu guztiak sinatu zutela. Baita langileek akordioa bete dutela eta greba bertan behera utzi zutela sinatu zen egunetik.

Sindikatuek patronalei eskatzen diente ez dezatela hitzarmenaren sinadura gehiago luzatu. Epaia bete dezatela errekurtsorik aurkeztu gabe; akordioan jasotzen diren gainerako eduki guztiak ere bete ditzatela betetze epea iristen den heinean, eta mahai negoziatzailea deitu dezatela greba amaierako akordioan adostutako edukiak hitzarmenean txertatzeko adostutako baldintzetan.

Sindikatuek Gizarte Ekimeneko langileak zoriondu nahi dituzte. Eta akordioa betearazteko beharrezko mobilizazio eta tresna guztiak aktibatzeko prest daudela adierazten dute.

Euskal Herrian, 2024ko urriaren 30ean



El TSJPV condena a las patronales de Iniciativa Social a pagar los salarios pactados en el Acuerdo de Fin de Huelga firmado en febrero

Los sindicatos exigen a las patronales que acaten la sentencia, actualicen los salarios, cumplan con el acuerdo de fin de huelga en los términos pactados y los incorporen al convenio sin mayores trabas

La sentencia ha sido dictada por el TSJPV. En ella el tribunal ratifica todas las cuestiones defendidas por los sindicatos en los últimos meses. Entre ellas, que el Acuerdo de Fin de Huelga está en vigor desde el momento que se firmó, es decir, desde el 5 de febrero de 2024; que las patronales tienen la obligación de cumplir el acuerdo, y que no está condicionada a la financiación; y que las patronales, a pesar de tener la obligación de empezar a pagar los salarios de 2024 en marzo, no lo han cumplido.

De esta forma, el Juzgado condena a las patronales a abonar los salarios a los/las trabajadores/as de Iniciativa Social en base a las tablas pactadas en el Acuerdo de Fin de Huelga en 2024 a partir de marzo de 2024, el mes siguiente a la firma del acuerdo.

Cabe recordar que el 5 de febrero se firmó el Acuerdo de Fin de Huelga en los centros de Iniciativa Social. El acuerdo se firmó como consecuencia de 14 días de huelga y diversas movilizaciones y fue suscrito por todas las patronales y sindicatos con representación en la mesa negociadora de los centros de Iniciativa Social. También que los trabajadores y trabajadoras han cumplido el acuerdo y desconvocaron la huelga desde el día en que se firmó.

Los sindicatos instan a las patronales a no prolongar más la firma del convenio. Que cumplan la sentencia sin recurrirla; que cumplan el resto de contenidos recogidos en el acuerdo a medida que llegue el plazo de cumplimiento, y que convoquen a la mesa negociadora para incorporar al convenio los contenidos acordados en el Acuerdo de Fin de Huelga.

Los sindicatos quieren felicitar a los trabajadores y trabajadoras de los Centros de enseñanza de Iniciativa Social. Y manifiestan su disposición a activar todas las movilizaciones y herramientas necesarias para hacer cumplir el acuerdo.

En Euskal Herria, a 30 de octubre de 2024

